

**INFORMAZIOKO BARNE SISTEMA KUDEATZEKO ETA INFORMATZAILEA
BABESTEKO PRINTZPIO OROKORRAK**

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

ZARAUZKO UDALA



ZARAUZKO UDALA



INFORMAZIOAREN SAILKAPENA

Fitxategiaren izena	Informazioko barne sistemaren printzipio orokorrak
Aplikazio-eremu geografikoa	Globala
Barneko aplikazio-eremua	Globala
Kategoria	Politika
Onarpen-data	2023ko ekainaren 12a
Aurreko bertsioa	NA
Onespen-organoa	Alkatetza
Egilea	FERNÁNDEZ & ELEJALDE ABOGADOS
Kontrol-arduraduna	Zarauzko Udalean Iruzurra Kontrolatzeko Batzordea
Informazio Sistemaren ardura	Zarauzko Udalean Iruzurra Kontrolatzeko Batzordea / Amaia Gorrotxategi andrea
Indarrean den bertsioa	1B
Aplikazio-data	2023ko ekainaren 13a.
Argitaratua eta eskuragarri	www.zarautz.eus webgunean



ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIO A	DATA	ONESPEN- ORGANOA	EGILEA	ALDAKETEN LABURPENA
1.0	12/06/2023	Alkatetza	FERNÁNDEZ & ELEJALDE ABOGADOS	Hasierako agiria.



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	1
2.	INFORMAZIOKO BARNE SISTEMA EZARTZEKO ETA KUDEATZEKO ARDURADUNAK	1
3.	INFORMAZIOKO BARNE SISTEMAREN ESKAKIZUNAK	1
4.	INFORMAZIOKO BARNE SISTEMA KUDEATZEKO PROZEDURA	2
5.	INFORMATZAILEAREN ESKUBIDEAK	2
6.	ERAGINDAKO PERTSONAREN ESKUBIDEAK	3
7.	PUBLIKOTASUNA ETA ERREGISTROA	3
8.	DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	3



1. SARRERA

2/2023 Legeak arautzen du Informazioko barne sistema bat nola ezarri Zarauzko Udalean (aurrerantzean, "**udala**"); 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa (aurrerantzean "**2/2023 Legea**").

Dokumentu hau egin da Informazioko barne sistema kudeatu eta informatzailea babesteko printzipio orokorrak idatziz jasotzeko (Informazioko barne sistemaren Protokoloan termino horri ematen zaion definizioaren arabera), 2/2023 Legearen 5.2 h) artikuluan xedatutakoa betez.

2. INFORMAZIOKO BARNE SISTEMA EZARTZEKO ETA KUDEATZEKO ARDURADUNAK

Informazioko barne sistema ezartzeko ardura udaleko Gobernu Organoei dagokie, langileen legezko ordezkariari kontsulta egin ondoren.

Udalaren ardura izango da Informazioko barne sistemaren bitartez jasotako datu pertsonalak tratatzea.

Informazioko barne sistemaren kudeaketari eta komunikazioen tramitatzeari dagokienez, Alkatetzak Iruzurra Kontrolatzeko Batzordea izendatu du Informazioko barne sistemaren arduradun (aurrerantzean, "**Sistemaren arduraduna**").

Era berean, eta 2/2023 Legearen 8.2. artikulua dakarrenarekin bat etorriz, Iruzurra Kontrolatzeko Batzordeak Amaia Gorrotxategi andrearen esku utzi ditu Informazioko barne sistema kudeatzeko eta ikerketa-espedienteak tramitatzeko ahalmenak ("**Sistemaren kudeatzailea**").

Izendapen hori ahal den arinen jakinaraziko zaio Informatzailea babesteko Agintaritza Independenteari (aurrerantzean, "**agintaritza independentea**").

3. INFORMAZIOKO BARNE SISTEMAREN ESKAKIZUNAK

Informaziok barne sistema da udalean salaketak eta kontsultak jakinarazteko eta tramitatzeko lehentasunezko bidea, Informazioko barne sistemaren Protokoloan horiei ematen zaien definizioaren arabera.

Hauek dira Informazioko barne sistemaren funtsezko printzipioak:



- ✓ Informatzailearen eta aipatutako hirugarren ororen nortasunaren konfidentzialtasuna bermatzea, bai eta informazioaren tratamenduarena eta ikerketarena ere.
- ✓ Edozein motatako errepresalietan bermeak ematea.
- ✓ Eragindako alderdien errugabetasun-presuntzioaren eta defentsa-eskubidearen printzipioa errespetatzea.
- ✓ Independentzia, inpartzialtasuna eta interes-gatazkarik eza bermatzea.
- ✓ Komunikazioak modu eraginkorrean tramitatzea.

4. INFORMAZIOKO BARNE SISTEMA KUDEATZEKO PROZEDURA

Udalak Informazioko barne sistemaren Protokolo bat dauka, bere funtzionamenduari buruzkoa, eta horren bidez jasotako komunikazioak nola tramitatu jasotzen duena. Zehazki, honako alderdi hauek arautzen ditu:

- Informazioko barne sistemaren funtzionamendua.
- Kanpoko informazio-kanalei buruzko informazioa.
- Informatzaileari jaso izanaren berri emateko betebeharra, eta jasotako komunikazioei erantzuteko gehieneko epe bat ezartzea.
- Informatzailearekin komunikatzeko eta informazio gehigarria eskatzeko posibilitatea.
- Jasotako informazioek eragindako pertsonaren eskubideak.
- Sistematan aurreikusten ez diren kanalen edo pertsonen bidez egiten diren komunikazioetara konfidentzialtasun-bermea zabaltzea.
- Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak ezartzen dituen eskakizunak.

5. INFORMATZAILEAREN ESKUBIDEAK.

Informatzaileak honako berme hauek izango ditu:

- Komunikazioa modu anonimoan formulatu nahi duen erabakitzea.
- Komunikazioa modu anonimoan izan bada, informatzailearen identitatea isilpean gordeko da, hirugarrenei ez jakinarazteko moduan.
- Komunikazioa ahoz edo idatziz formulatzea.
- Konfidentzialtasun erabatekoa.
- Inolako errepresaliarik ez izatea.



- Helbide bat, posta elektronikoa bat edo egiten dituen komunikazioak jasotzeko leku seguru bat adieraztea.
- Hala dagokionean, udalaren komunikazioak jasotzeari uko egitea.
- Agintaritza independenteari eskatzea agerraldia bideokonferentziaz egiteko edo, baita, informatzailearen nortasuna eta komunikazioaren segurtasuna eta fideltasuna bermatuko duten beste bitarteko telematiko seguru batzuen bidez ere.
- Datu pertsonalak babesteko legeriak ematen dizkion eskubideak baliatzea.
- Salaketaren tramitea zertan den jakitea.

6. ERAGINDAKO PERTSONAREN ESKUBIDEAK.

Edozein informaziok eragin duenari eskubide hauek bermatuko zaizkio:

- Alegazioak idatziz egitea.
- Sistemaren arduradunarekin aurrez aurre edo beste edozein bide erabiliz elkarrizketa bat izatea.
- Errugabetasun-presuntzioa errespetatzea.
- Egokitzen jotzen diren frogabideak aurkeztea.

7. PUBLIKOTASUNA ETA ERREGISTROA

Udalaren webgunean (www.zarautz.eus) informazio argia eta eskuragarria dago jakiteko nola erabili Informazioko barne sistema eta zein diren kudeaketa prozeduraren funtsezko printzipioak.

Era berean, Sistemaren organo arduradunak jasotako komunikazioen eta egindako ikerketen Erregistro Liburu bat du. Erregistro Liburu hori ez da publikoa, eta epaileek eta auzitegiek bakarrik eskura dezakete prozedura judicial baten barnean.

8. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Informazioko barne sistemaren bitartez lortzen diren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, arau hauek bete beharko dira:

Tratamenduaren arduraduna	ZARAUZKO UDALA DBO kontaktua: dbo-dpd@zarautz.eus Helbidea: Kale Nagusia 29 20800 Zarautz Gipuzkoa
----------------------------------	---



	IKZ: P2008500G
Tratamenduaren arduraduna	Amaia Gorrotxategi andrea kanaletikoa@zarautz.eus
Datu pertsonalen tratamenduaren xedea	Informazioa jasotzea eta informatzailearen eta salatuaren eskubideak bermatzea, 2/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	2/2023 Legearen 10. eta 13. artikulua. DBEOaren 6.1 c) artikulua. DPBLaren 11. artikulua.
Datuen hartzaileak	Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, salbu eta 2/2023 Legearen 32. artikuluan datozen kasuetan. 2/2023 Legearen 33.3. artikulua arabera, informatzailearen nortasuna epaitegi eskudunari, Fiskaltzari edo dagokion administrazio-agintaritzari baino ezin izango zaio jakinarazi, zehapen-, diziplina- edo zigor-ikerketaren baten esparruan.
Kontserbazio epea	2/2023 Legearen 32.3 artikulua arabera, ikerketa bat hastea bidezkoa den ala ez erabakitzeko behar den denboran baino ez dira gordeko datuak. Nolanahi ere, informazioa jasotzen denetik 3 hilabete igaro eta ikerketa-ekintzarik hasi ez bada, ezabatu egingo dira.
Datu pertsonalen titularraren eskubideak	Datuen titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramateko, hala dagokionean, dbo-dpd@zarautz.eus helbidean. Halaber, eskubidea du erreklamazio bat aurkezteko kontrol-agintaritzaren baten aurrean (AEPD), www.aepd.es webgunean duen egoitza elektronikoan.